

### Aitortza haren markei

## **EROSKI-K HAMAR "SALUTE TO EXCELLENCE AWARDS" NAZIOARTEKO SARI JASO DITU**

- Haren produktuetatik hamar izan dira sarituak 2017an; lehiaketan egon dira 27 herrialdetako 83 txikizkako, 700 produkturekin.
- Joan den urtean Europako merkatuan sartu diren banatzaile-markako produktuen bikaintasuna aitortu du Salute to Excellence Awardsek

Elorrio, 2017ko maiatzaren 24a.- [EROSKI](#)k hamar sari jaso ditu [Salute to Excellence Awards](#) nazioarteko sarien azken lehiaketan; orain berriki banatu ditu [Private Label Manufacturers Associationek](#) Amsterdamen. Zehazki, bere elikagai produktuetako bost saritu dituzte, beste hiru elikaduraren arlokoak ez direnak eta bi ardo; hortaz, EROSKI izan da aurten Europako txikizkako sari gehien jaso dituen.

Hauek dira saria ateratu duten EROSKIren produktuak: *EROSKI SeleQtiaren espezialitateko galleta sorta*; *EROSKI SeleQtia pikillo piper konfitatuak*; osagaien arloan, *Aurum-Radler %0,0 garagardoa* edari gabeko alkoholetan, *EROSKIren arto opiltxo kinoa* zizka-mizka osasungarrien kategorian eta *barazki errez eginiko EROSKI SeleQtiaren pizza izoztua* pizzen kategorian. Sari horietaz gain, elikaduraren arloan *Setien La Mancharen 2014ko ardo ondua* eta *Rueda jatorri izena duen YELaren 2013ko verdejo motako ardo zuria*, ardo berezien kategorian. Elikaduraren arlokoak ez direnetan, berriz: *Flash Belle* tratamendu kontzentratu saritu dute ilea zaintzeko produktuen kategorian; *EROSKIren stick arnica* eta *harpagofito* errezetarik gabeko eta osasunerako produktuen kategorian; eta *EROSKIren lixiba efektua egiten duten pastillak* etxea garbitzeko produktuenean.

Salute to Excellence Awards sariek bikaintasuna aitortzen dute banatzaileen markako produktuaren zenbait alderditan, hala nola kalitatean, berrikuntzan eta ontzian; horretarako, aurreko urtean sartuak izan behar dute Europa osoko supermerkatuetan, hipermerkatuetan, deskontu dendetan, drogerietan eta denda espezializatuetan. Aurtengo lehiaketan, 27 herrialdetako 83 txikizkakoren 700 produktu izan dira, bai elikaduraren arlokoak eta bai ez direnak.

Hautagaitzak ebaluatzeko, zenbait ezaugarritan erreparatu dira, zaporean, itxuran, ontzian, aurkezpenean, produktuaren kontzeptuan eta kalitate-prezio erlazioan. Sariak erabakitzeke, industriaren arloko adituak egon dira epaimahaian; besteren

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

artean, sukaldariak, enologoak, garai bateko txikizkariak, akademikoak, nutrizionistak, kazetariak eta ontzien espezialistak.

Joan den urtean ere, 2016an, sariak eman zizkion Salute to Excellence Awardsek EROSKIren *Egosaldi azkarreko kiribilei*, saltsen eta pasten kategorian; *belle Urre Magikoa xanpuari*, ilearen zainketan eta *Zorua garbitzeko Love Aloe Vera EROSKI kapsulak*, etxea garbitzeko produktuetan. 2015ean, berriz, *Asian Sensations belle olio desmakillatzailea* saritu zuten aurpegiaren zainketarako kategorian. Eta, 2014an, kalitatea, berrikuntza eta ontzia aitortu zieten 0,5 litroko *Aurum Hefe-Weissbier* garagardoari eta 400 mililitroko *belle* berehalako ile egokitzaile bifasiko purifikatzaileari.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)